

B

BARREN

TOKIKOM

Elgoibar ezagutzen

Pello Arrieta historialariarekin



BIRZIKLAGARRIA NAIZ.


Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.





Andres
Alberdi

Azken egunotan hizketagai izan diren hainbat gai erabili ditiat buruan hausnarrean, Angel: eguraldiaz idatziko ote dut? (*Hau duk hau udaberria!*), politikarien saldukeriaz? (*Zenbat lapur bazterretan!*), azken greba orokorraz? (*Inor gustura bai?*), euskal kirol-taldeen denboraldiaz?...



Anjel
Ugarteburu

Azkenengoari heldu zioat. Hara, zergatik:

Euskadi Irratia entzuteko ohitura diat; tarteka kirol-programak ere bai noski. Ohikoak dituk haietan elkarriketak. Eta hortxe sortzen zaidak behaztopa larria: sarritan, erabat sutzen nauk hangoak entzunda, eta, gezurra badirudi ere, irratia itzaltzerainoko amorrua hartzen diat.

Berdin zioak futbolaria, pilotaria, arraunlaria edo txirindularia izan; berdin zioak neska ala mutil. Zeharo haserretzen nauk gure kirolariek darabilten hain euskara makal, mengel, ahul, txiro eta pobreaarekin. Zenbaitetan, bazirudik haietako askok ez dakitela esaldi bat taxuz josten ere takian-potian *bueno ba* edota *eta bueno* eta gisako hitz betegarriak erabili gabe! Nor edo nori esaldi berean *bueno ba* bost aldiz ere kontatu zioat inoiz!

“Bazirudik kirolarietako askok ez dakitela esaldi bat taxuz josten”

Kirolariok derrigorrezkoak ditiztek, jakina, entrenatzaileak, masajistak, dietistak, sendagileak..., mutil eta neska iaioak, sanoak, azkarrak, indartsuak, argiak behar baitira partidak irabazteko. Horrela lortzen duk kalitate-a.

Baina partida ez duk zelaian bakarrik jokatzen. Kirolari horiek ia egunero hitz egin behar izaten ditek jendaurrean edota komunikabideetan. Onerako edo txarrerako, kirolari horiek gure ume eta gaztetxoek idolok eta eredu dituk. Eta hortxe ikusten diat ekiparaziorik eza. Partidako joko-estrategiak azkeneraino zaintzen ditiztek, baina hizkuntzaren kalitateari eta estrategiari ez zaiok begiratzen, ez zaiok garrantzirik ematen. Hankamotz gabiltzala uste diat, Angel. Zer deritzok?

Nik, ostera, hik jarritako puntuari erantzuna ematea beste lanik ez jaukat. Abantaila erantsi bat ere bai, eta ez txikia, domekan idatzi dudalako. Realak amaitu berri duen denboraldi aparta dok han eta hemen denon ahotan dabilena. Ez joat nota diskordanterik jarriko: Gora Realak. Eta gora lehia sanoa.

Ume-umetatik Athletic-zale sentitu naizen arren, hala arnastu nuelako, ingurukoek garaipenak eta pozak ere gogoko jituak. Areago talde horretan ikasle izan, lagunak semeak eta neure jaioterri ingurukoak badituk (Antsoategi, Yagoba, Iñigo, Eñaut). Horien arrakastan partaide sentitzen joat neure burua.

Kirolarien artean ez dok, ez, behar bestean zaintzen hizkuntza. Futboleak euskara ez, behintzat. Erderaz dihardutenean ere berdintsu, dena den (*Pero bueno, la verdad es que, ya te digo*). Erantzun soil baterako lau makulu. Ondo jokatzea dagokiela esango jok batek baino gehiagok eta ez ondo berba egitea. Baina ados najak hirekin, Andres, apur bat gehiago eskatzerik badagoela noiznahi mikrofonoa ahoaren aurrean duten horiei.

“Ondo jokatzea dagokiela esango jok batek baino gehiagok, eta ez ondo berba egitea”

Kontrapuntua jarriko deuat, Andres, haritik aldendu barik. Euskara nahiz erdera ederrean jarduteko kapaz diren hainbat kirolariren izenak botako neukezak, bilatzen ahalegin handirik egin beharrik gabe. Leitzako Perurenatarrak zein Barriola; Goizuetako Aimar zein Apezetxea; Elgoibar bertoko Markel zein Zuhaitz; Maider Unda zein Oihana Kortazar, bi emakume aipatzearen... Alde positiboak azpimarratzea ere bajagokiguk, euskal kirola ospakizunetan den honetan.

Izan gaitezen trebe euskararen erabileran ere.



I. URTEURRENA

JOSE URAIN LAZKANO

2012ko maiatzaren 26an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainak 9, eguerdiko 12:00etan Azpilgoetako elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



MARKEL BERGARA

REALEKO JOKALARIA



“Ilusio handia egingo lidake San Siron Milanen kontra jokatzek”

Reala Europako Txapelketa Ligako atarikoan da. Azken aldiz 2003. urtean sailkatu ziren txuri-urdinak txapelketa horretarako, eta urte hartan gainera, Espainiako Liga irabazteko zorian izan ziren donostiarrak. Urte gozo haien ostean, baina, une gaziak ere bizi izan zituen talde txuri-urdinak, eta Bigarren Mailan egin zituen hiru denboraldi. 2010ean igo ziren berriz Lehenengo Mailara, eta hiru urteren buruan onenen artean egotea lortu dute. Markel Bergara jokalaria elgoi-bartarrak 2007an egin zuen debuta Realarekin, Kopa txapelketan, eta ordutik 94 partida jokatu ditu elastiko txuri-urdinarekin. Pozik hartu digu telefonoa. Oporretan harrapatu dugu, Ibizan, baina BARRENEkin hitz egiteko tarte bat hartu du.

Azkeneko partidara arte luzatu da realzaleen agonia, baina azkenean lortu duzue. Egiguzu denboraldiaren balorazio bat.

Egia esan oso denboraldi polita izan da, eta nik uste dut bai zaleek eta baita guk ere, jokariok, oso ondo pasatu dugula aurtan. Pentsatzen genuena baino hobeto irten dira gauzak, eta sufrutura bada ere, lortu dugu denboraldia hasi aurretik inork sinisten ez zuena.

Bigarren Mailan jokatzetik Txapeldunen Ligako atarikorako sailkatzea lortu duzue hiru urtean.

Bai, asko da. Horrek esan nahi du Klubak eta zuzendaritzak egindako apustuak funtzionatu duela: etxeko jendearekin saiatzea, gazte askori aukera ematea eta fitxaketekin asmatzea. Lan ona egin du, eta sekulako poza ematen du emaitza ikusteak.

Zein izan da aurtengo denboraldia horren ona izateko sekretua?

Urte askoan elkarrekin jokatzeko ibili garen etxeko jendearengan sinistea eta egin diren fitxaketetan bete-betean asmatu izana.

Ligako azkeneko partidari, Deportivoren kontrakoan, txartel gorria ikusi zenuen. Nola bizi izan zenuen partida?

Egia esan gogorra izan zen. Lehenengo zatian nik uste dut ondo jokatu genuela, baina bigarren zatian aurrera egin zuten. Logikoa den bezala, irabaztera irten behar ziren, bai edo bai, eta igarri zen. Guk ez genuen partidari sartzetik lortu eta azkeneko momentura arte sufritu genuen. Modu injustuan kanporatu ninduten, eta azkeneko hamar minutuak bizitzako luzeenak egin zitzaizkidan.

Zure ibilbidean, lorpen pertsonalik handiena izango da hau, ala?

“Balio izan du etxekoekin saiatzeak, gazteei aukera emateak eta fitxaketekin asmatzeak”

Bai, bai. Pertsonalki izugarria izan da denboraldi hau. Asko jokatu dut, taldeak ondo funtzionatu du, eta dudarik gabe, ez ahazteko moduko denboraldia izan da hau niretzat.

Phillippe Montainer entrenatzaileak uko egin dio taldean jarraitzeko Klubak egin dion eskaintzari eta badoala jakinarazi du. Denboraldi hasieran kritika ugari jaso zituen; orain, Txapeldunen Ligako atarikorako sailkatu zaretenean, badoa. Nola hartu duzue berria?

Egia esan guk ikusten genuen hori gertatu zitekeela. Batetik, klubak urte bakarrerako kontratu luzapena eskaini zion, eta bestetik, Frantziako beste klub batek hiru urterako proiektu sendo baten ardura hartzea eskatu zion. Futbola epe luzeago baterako proiektutzat ulertzen du berak eta egin dioten eskaintza ikusita, ulertu behar da.

Montainerrek konfiantza osoa izan du zuegan, eta horren adibide dira jokatu dituzun minutu guztiak. Oraindik ez dakigu zein izango den bere ordezkia, baina kezkatzen zaitu?

Bai, egia esan asko zor diot, eta eskertzen diot nigan jarri duen konfiantza. Ez nau kezkatzen besteak. Espero dut, hori bai, jarraitzea bide honetan. Jakin badakigu oso zaila izango dela aurtengo denboraldia errepikatzea, baina espero dut taldeak erantzutea eta gauzak ondo iritetea.

Txapeldunen Ligako atariko horretan Europako talderik onenen kontra lehiatu beharko zarete. Nola aurreikusten dituzue partida horiek eta zein nahiko zenuke zuk aurkari?

Garbi dago Europa eta mundu mailako sei talde onenak hor izango direla eta tokatzen dena tokatuta ere, zaila izango dela sailkatzea, baina ilusioz gaude, eta dena emango dugu. Edozein dela ere tokatzen zaiguna, partida erakargarria izango da, baina bat aukeratzekotan, Milan aukeratuko nuke. Ilusio handia egingo lidake San Siron Milanen kontra jokatzeko.

Datorren denboraldiari begira, realzaleen ustez garrantzitsuen aurtengo jokalarik gehienek eustea izango da. Zaila ikusten duzu?

Garbi dago denboraldi on bat egiten denean jende gehiagok ikusten zaituela, eta taldean horrenbeste jende gazte egonda, etorkizun handiko horrenbeste jokalarik gazte, bada normala da kanpoko taldeak begira egotea eta eskaintzaren bat egitea, baina nik espero dut inor ez joatea eta aurtengo taldeari eutsi ahal izatea.

Bartzelonaren eta Real Madrilaren ostean ondoen jokatzeko duen taldea Real delako irakurri dugu astelehen bat baino gehiagotan Gipuzkoako egunkaririk salduenean. Nola hartzen dituzue horrelako lorak?

Ezagutzen dugu gure ofizio hau eta ohituta gaude halakoetara. Badakigu gauza onak zein txarrak handitzeko joera duela beti prentsak, eta ikasi dugu kasurik ez egiten.

“Eskaintzaren bat egotea normala da, baina espero dut aurtengo taldeari eutsi ahal izatea”

Bederatzi bat partidatan, hamarren kontra jokatzeko bukatu duzue. Hori zer izan da, tri-ripa edo zuen abilezia kontua?

Bietatik du, baina nik esango nuke gure aurkariak ere badutela zeresana horretan. Aurkariak erasora jokatzeko duenean, atzelariak lanak izaten dituzte eta normala da sarrera gehiago egitea. Eta gure kasua hori izan da. Goleko jokaldi asko egin ditugu, eta lana eman diegu aurkariari.

Euskal futbolak poz bat baino gehiago eman du aurtan.

Bai. Futbola hemengo kulturaren parte da, eta nik esango nuke osasun ona duela. Iaz Athleticek urtea izan da, eta aurtan guri tokatu zaigu gozatzea. Alavesek lortu du mailaz igoetzea, Eibar ere gogor dabil lehian, eta nik uste dut harro sentitzekoa dela.

Zuhaitz Gurrutxagaren telebista saioan ikusi genuen Realeko jokalariek baduzuela abesti bana aukeratuta gola sartzen duzue nerako. Zurea oraindik ez dugu entzun.

Jajaja. Espero dut datorren urtean entzutea. Zuhaitzek bere kamiseta oparitu zizun telebistako saio batean eta Txapeldunen Ligako eskatu zizun trukean. Emango zeniola agindu zenion, baina orain, atarikorako sailkatuta, beteko al duzu hitza?

Bat baino gehiago baldin badaukat, bai, baina bakarra baldin badaukat, ez.

Zer esango zenieke Elgoibarko realzaleei?

Badakidala aurtan disfrutatutako dutela eta espero dudala datorren urtean ere disfrutatzeko aukerak ematea. Eta bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet, ondoan izan ditudalako beti.

Zortzi ordutik laura murriztuko dute Elgoibarko KZgunearen ordutegia

Astelehenetik aurrera goizez bakarrik zabalduko dute

Astelehenetik aurrera, goizez bakarrik zabalduko dute Elgoibarko KZgunea (9:00etatik 13:00etara). Eusko Jaurlaritzako iturriek BARRENI baieztatu diote zerbitzuen murrizketak eragin zuzena izan duela KZguneen funtzionamenduan. Zerbitzuen murrizketak langilegoari ere eragin dio hainbat herritan, Jaurlaritzatik baieztatu dutenez, eta langileek eta KZguneetako erabiltzaileek kanpaina hasi dute sare sozialetan, *KZguneak ez itxi* lelopean. Sinadurak biltzen ere hasi dira.

Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen ardura da berez KZguneen funtzionamendua arautzea eta beharrezko diren baliabide pertsonal, teknologiko eta didaktikoak ezartzea. Elgoibarko lokala, berriz, Udalarena

da, eta Udalak du lokalaren gaineko erantzukizun zibila. Hau da, beharrezko diren aseguruak kontratatu eta segurtasun neurriak betetzen direla egiaztatzeko ardura du Udalak. Era berean, lokalaren mantenua ere Udalak hartzen du bere gain, eta baita KZgunean egiten denaren berri ematea ere, horretarako aldikari ofiziala eta bestelako bitartekoak erabiliz.

Mendaron ere murrizketak

Mendaroko KZgunearen zerbitzua ere orain bi hilabete baino murriztagoa da orain, Udalak jakinarazi duenez. Ordura arte, hilean lau alditan irekitzen zuten, 16:00etatik 20:00etara. Orain, aldiz, astean birritan zabalitzen dute, 16:00etatik 18:00etara.

Domekan, hilaren 8an, zabalduko dituzte Mintxetako igerilekuak

Ohi baino astebete lehenago zabalduko dituzte aurten Mintxetako igerilekuak: domekan, hilaren 8an. Irailaren 8ra arte luzatuko da bainu denboraldia. Asteazkenean zehar 11:00etan zabalduko dituzte igerilekuak, eta asteburuetan, berriz, 10:30ean. Itxi, berriz, ekainean eta uztailean 20:30ean itxiko dituzte, eta abuztuan eta irailean, 20:00etan. Iaz, 52.000 erabiltzaile izan zituzten igerilekuek.

Jubilatuaren egoitzatik Milagrora

Elgoibarko Jubilatuen egoitzak Milagrora irteera antolatu du ekainaren 20rako, Udalaren laguntzarekin. 8:15ean irtengo dira Kalegoen plazatik, eta Milagrora bidean geldialdi bat egingo dute, hamaiketako egiteko. Arnedo hiria ere bisitatuko dute bidaiari. Jubilatuen egoitzako bazkide direnek 35 euro ordaindu behar dituzte, eta gainerakoek 40 euro.

Zabaldute Gure Balioak Sarietarako hautagaiak aurkezteko epea

Debabarrenean gizarte balioen arloan nabarmendu den pertsona edo entitate saritzeko sortu zuten Gure Balioak Sariak, eta edonork aukeratu ditzake bere hautagaiak. Zabaldute horretarako epea, eta ekainaren 25ean amaituko da. Informazio gehiagorako: www.gurebalioak.com.

Porrotx pailazoak, Irrien lagunak eta Mauxitxa txarangak bat egin dute Oin Alai egitasmoarekin



Oin Alai egitasmoak hiru urte bete ditu dagoeneko, eta hori ospatzeko eta datorren ikasturtera begira izena emateko epea zabaldu dela jakinarazteko, Oin Alai berezia egin zuten atzo Elgoibarren. Mauxitxa txarangakoak, trikitilariak, Porrotx pailazoa eta Irrien lagunak izan zituzten lagun hurrek, ikastetxera bidean. Irrien lagunetatik Largabista eta Tiritatxo etorri ziren. Largabista naturazale amorratua da, naturaren sekretu guztiak dakizkien gizon jakintsua. Tiritatxo, berriz, peditaria da, umeen osasuna zaintzeko eta hobetzeko eginahalak egiten dituena.

Elgoibarko Swislan enpresak 'Bai industriari!' errekonozimendua jaso du

Berrikuntzaren alde egiteagatik nabarmendu dute, besteak beste

Debegeesak Ekintzailearen Eguna ospatu zuen hilaren 28an, Debabarreneko pertsona ekintzaileen lana eta esfortzua aitortzeko, eta sarietako bat, *Bai industriari!* errekonozimendua, Elgoibarko Swislan enpresak jaso zuen. Industria sektorean berrikuntzaren alde egiteagatik, sektore emergenteetan lan egiteagatik eta Debabarreneko beste enprekin lankidetzan aritzeagatik nabarmendu zuten, epaimahaiaren arabera. Enpresako sustatzailer Antton Osoro eta Anjel Ibarluzea ezin izan ziren sari banaketa ekitaldian egon, eta haien ordeztu, enpresako langileetako batek jaso zuen errekonozimendua: Egoitz Plazak. Swislanen eta gainerako sarituen gaineko informazio gehiago: www.debege.com webgunean.

Ekingune aurkeztu dute

Martitzenean aurkeztu zuten Ekingune Elgoibarren. Ekintzaile-



Egoitz Plaza, gainerako sarituekin batera.

en arteko lankidetzaren eta sustapenerako elkarlana da sortzaileen esanetan, eta Debabarreneko ekintzaileen artean kooperazioa eta elkarlana sustatzea eta haien interes ekonomikoak eta sozialak defendatzea dute helburu.

Beste herri askotan baino oihartzun apalagoa izan zuen grebak gurean



ELA eta LABek deitutako grebek Gipuzkoan izan ohi dute eragin handiena, eta joan zen ostegunean ere hala izan zen. Hala ere, Debabarrenean Gipuzkoako batez bestekotik beherakoa izan zen oihartzuna. Mendaron, esate baterako, bi tabernak eta saltoki batek ez beste guztiek zabaldu zuten, eta herriko bi industrialdeetan normaltasuna izan zen nagusi. Elgoibarren grebak eragin handiagoa izan zuen, bereziki erdigunean. Hala ere, herriko saltoki handiak, Eroski, Dia eta Netto adibidez, zabalik egon ziren. Auzoetan, berriz, eta azkeneko greba deialdi guztietan gertatu bezala, oihartzuna txikiagoa izan zen. Industrialdeetan, bestalde, kale barruan baino mugimendu handiagoa nabari zen.

Google Maps-eko autoa Elgoibarren ibili zen martitzenean

Google Maps enpresako autoa Elgoibarren barrena ibili zen martitzenean irudiak hartzen. Google Map-ek eskaintzen duen funtzio ezagunetarikoa da Street View. Munduko edozein kale edo bazterren 360 graduko ikuspegi panoramikoak eskaintzen ditu aplikazio honek, eta hain zuzen ere, horretarako irudiak batzen ibili ziren asteartean hemen. Elgoibarren jasotako irudiak Google Street View sistemara gehitzen dituztenean, ordenagailu aurrean jarri, eta Google bilatzaileko mapen sistemak duen Street View zerbitzua martxan jartzearekin nahikoa izango da gure herriko 360 graduko ikuspegi panoramikoak ikusteko.



'Bateragune auzia' Manifestazioa zapatuan

Bateragune auzian kartzelatutako bost lagunek, tartean, Arnaldo Otegik, kartzelan jarraitu beharko dute. Auzitegi Konstituzionalak atzera bota du bost zigortuak behin-behinean aske uzteko defentsak aurkeztu zuen eskaera, zigorrak bost urtetik gorakoak direlako, Fiskaltzaren eskaera bere eginez. Behin-behineko askatasuna ukatuta, Konstituzionalak tramiterako onartu zuen helegitearen inguruko erabakiaren zain egon beharko dute Otegik, Diezek, Jacintok, Rodriguezek eta Zabaletak, ordurako zigor osoa bete izatea litekeena izan arren.

Konstituzionalaren erabakia salatzeko, Arnaldo askatu, politika askatu herri ekimenak manifestaziora deitu du zapatarako. Kalegoen plazatik abiatuko dira, 13:00etan.

Hondakinak Usurbilera bisita



Elgoibarko eta Mendaroko Zero Zabor taldeak deituta, Usurbilera bisita egin zuten hainbat lagunek hilaren 25ean. Han, Gipuzkoa Zero Zabor taldeko Jose Mari Irasturen azalpenak entzun zituzten eta auzokonposterako guneak, herri-baratzak, Garbigunea eta Berrerabilitze guneak bisitatu zituzten, besteak beste.

Organo Emaileen Elkarteak informaziorako mahaiak jarriko ditu Elgoibarren

Organo Emaileen Nazioarteko Eguna izan zen ekainaren 5a, asteazkena, eta horren harira, gaur, bihar eta etzi informazio mahaiak jarriko ditu Alcerrek, Gipuzkoako Giltzurrun Gaixoen Elkarteak, Elgoibarren. Organoak lortzeko zailtasunez ohartarazi nahi dute, eta herritarrak sentsibilizatu. Orokorrean, ospitaleko ZIUn hiltzen direnak bakarrik dira emaile potentzialak, garun lesio batengatik, hemorragiatik edo traumatismo bategatik hildakoak. Horrek asko zailtzen du organo ematea. laz, esaterako, 20.000 lagun inguru hil ziren Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian eta horietatik ehun lagun bakarrik eman zituzten erren organoak.

Hiru herrialde horietan 3.100 lagun bizi dira beste norbaiten organuari esker. Giltzurruna transplantatutakoak dira horietako 1.800.

I. URTEURRENA

JOSEBA BILBAO GARATE

Joseba guria, zure alaitasuna eta bizipoza gurekin daude.



2012ko ekainaren 4an hil zen,
48 urte zituela.

I. urteurreneko mezak:
Ekainak 8, zapatua, arratsaldeko 19:00etan
Elgoibarko San Bartolome parrokan.
Ekainak 9, domeka, eguerdiko 12:30ean
Itziarko Amaren eliz parrokan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Uhanue KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskerrik asko

Lerro hauen bitartez, Trinitateko Jai Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie Mendaroko Trinitate jaiak antolatzen lagundu zuten guztiei, eta baita, era berean, jaien barruan Bitoriano Loiola Ospas eta Sabin Longarte trikitilariari egindako omenaldia antolatzen lagundu zieten guztiei ere. Eskerrik beroenak denei.

Mendaroko Trinitateko Jai Batzordea ◀

Greba orokorren inguruan

Greba orokor bat deitzen den bakoitzean komunikabideetan zabaltzen diren ideien artean hauek ditugu:

1. Grebak ez du ezertarako balio. Egia da lorpenak ez direla hurrengo egunean ikusten. Grebak borroka prozesu oso baten barruan kokatu behar dira, eta borroka horrek bere fruituak ematen ditu. Espainiar estatuko hainbat autonomitan egin diren ospitaletako pribatizazioak Euskal Herrian ez dira egiten, herri mugimenduaren presioarengatik. Espainiako Gobernuak komunitate desberdinei bidalitako txosten baten bidez argi esaten die osasun zerbitzuetan murrizketa neurri desberdinak aplikatzeko, oposizio mailaren arabera. Beraz, borrokatuko ez bagenu, gehiago estutuko gintuzkete.

2. Grebak politikoak dira. Noski! Laneko eskubideak, eskubide sozialak, gabonetako paga ordaintzea... politikoen hartutako erabaki politikoen ondorioak dira. Eta guk politikoen presionatu behar ditugu egiten diren politikak goitik behera alda ditzaten eta gehiengoaren aldekoak izan daitezen.

3. Piketeen presioarengatik ez balitz, askok ez lukete greba egingo. Gizartea ez da inoiz aldatu geldirik geratzen direnengatik, borrokatzen eta presionatzen dutenen indarraren ondorioz baizik. 8 orduko lan-jarduna, asteburuko atsedendia, oporrak, bajak, lizentziak, baimenak... egun oraindik ditugun eskubide guzti-guztiak greba, pikete eta langileen indarraren bidez lortu dira. Beraz, piketeen jarrera salatzen duten guztiei esango nieke "pribilegio" horiei guztiei uko egiteko, salatzen dituzten bideetatik lortu baitira.

J. Karlos Marcos. LAB sindikatua ◀

Besarkada bat, Arnaldo!

Bateragune auzian epaitutakoek kartzelan segitzea erabaki berri dute espainiar epaitegiek. Gure besarkadarik beroena bidali nahi diogu bereziki gure kide Arnaldori eta beste bana Rafa, Arkaitz, Sonia eta Mireni ere. Batez ere, Arnaldoren senideei gure babesa adierazi nahi diegu epaiketa berriekin egoera zapuztu nahi duten une gogor hauetan. Militantzia eta konpromisoa garesti ordainarazi nahi dizkigute, baina bilatzen dugun helburua ere ez da makala. Askatasuna dugu helburu. Arnaldok dion bezaa: "Egin irrifarre, borrokatzera goaz. Egin irrifarre, irabaztera goaz."

Elgoibarko Sortuko kideak ◀

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitzik argitaratuko.

Kalamua guraso elkarteak saritu dute hezkuntza-jarduera onen lehiaketan



Kalamua Guraso elkarteak lehen saria lortu du Guraso Elkartearen hezkuntza-jarduera onen lehiaketan. EHIGEGE, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak, hirugarren urtez antolatu du lehiaketa, eta guztira, 47 esperientzia edo egitasmo aurkeztu dituzte lehiaketara. Elgoibar-ko Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak bi egitasmo aurkeztu zituen lehiaketara, eta horietako bat nabarmendu du EHIGEGE, *Urtantak, poliki-poliki blai* egiten izenekoa (Kalamua Guraso Elkartearen webgunean informazio gehiago: <http://kalamuaurtantak.wordpress.com/>). Domekan jaso zuten saria Mungian, Euskal Eskola Publikoaren 22. jaiaren barruan. 1.500 euro jaso dituzte saritzat.

Bitter Honey taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan

Sinuose elkarteak antolatuta, Bitter Honey talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du gaur gauean, Kultur Etxeko sotoan. Debagoieneko lau musikaririk osatzen dute taldea, eta euren doinuetan rock estiloa da nagusi. Led Zepelin, Deep Purple edo Black Sabbath bezalako taldeen eragina nabari da euren abestietan. 23:00etan izango da kontzertua, eta sarrera hiru euroan jarri dute antolatzaileek.



Koadrilen arteko Txaranga lehiaketa antolatu nahi du Kultura Sailak sanbartolomeetarako



Herriko koadrilen parte-hartzea sustatzeko, San Bartolome jaietarako Txaranga lehiaketa antolatu nahi du Udaleko Kultura Sailak. Lehiaketan izena emateko 18 urtez gorakoa izatea da baldintzetako bat. Era berean, txaranga bakoitza gutxienez zazpi kidek osatu beharko dute, eta lau musika tresna ezberdin jo beharko dituzte txarangakideek. Aurrekoaz gain, Txaranga lehiaketa ez da egun jakin eta bakar batean egingo, izan ere, hainbat egunetan girotu beharko dituzte herriko kaleak, abuztuaren 23tik 31ra bitartean. Ekainaren 20an amaituko da izena emateko epea. Eta izena ematen duten talde kopuruaren arabera erabakiko dute antolatzaileek lehiaketarekin aurrera egin ala ez. Oraingoan, lehiaketa proposamena dela zehaztu dute.

Musika Eskolan izena emateko epea zabalik

Inazio Bereziartua musika eskolan zabaldu dute 2013-2014 ikasturterako matrikulazio epea. Interesatuak ekainaren 20rako eman beharko dute izena. Informazio gehiagorako deitu 943 742 145 telefono zenbakira.

Argazkilaritzari buruzko oinarritzko ikastaroa

Argazkigintza digitalari buruzko oinarritzko ikastaroa antolatu du Ongarri argazkilari taldeak. Esmeralda Zaparoli argazkilariak eskainiko du ikastaroa, ekainaren 15ean eta 22an, 9:00etatik 12:00etara. Zortzi laguneko muga jarri dute. Horregatik, interesatuak izena lehenbailehen emateko gomendioa egin diete antolatzaileek. Ikastaroak 50 euro baliatu ditu. Informazio gehiagorako deitu 656 716 034 (Esmeralda) telefono zenbakira.

Ate irekiak antolatu ditu Taupadak ekainerako

Taupada antzerki taldeak ate irekien jardunaldiak antolatu ditu ekainerako. Beraien lokala eza gutu eta euren jardunbidearen azalpenak emango dituzte. Ekainaren 17an eta 18an Herri Eskolako LH ikasleentzako saioak egingo dituzte, eta 19an eta 20an, Ikastolakoentzako. Hilaren 22an, berriz, herritarrentzako saio irekia izango da, 10:00etatik 14:00etara. Interesatuak Usetxe kaleko 1 zenbakira agertu daitezke (Pedro Muguruza eskolako eraikinean).

Biraka dantza taldearen ikasturte amaierako jaiak

Biraka dantza taldeko ikasleek kurtso amaierako jaialdia egingo dute ekainaren 12an eta 13an. *Ametsak* lana aurkeztuko dute, Herriko Antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Pitxintxu liburudendan, hiru euroan.



ezkontza

gehigarria



AZALEA Edergintza

M^a Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

HIDRODEPURAZIOA

Organismoaren garbiketa naturala


GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA

Depilazioa (laserra, elektriko eta argizarizkoa) - Mikropigmentazioa

EZKONBERRIENTZAT BONU BEREZIAK

Gorputz eta aurpegi tratamendua
Ezkontza aurreko egunean, lasaitasuna eta harmonia
Kosmetika naturala eta ekologikoa ...

Cristina Garcia
Estetika eta Terapia Naturalak

Errosario kalea 19 
943 74 29 50 · cgestetika@gmail.com

Astelehenetik ostiralera
9:30tatik 13:00tara - 15:00tatik 19:30tara
Larunbata
10:00tatik 13:00tara





MONUMENTU ARTISTIKOA




LASA JATETXEA

250 LAGUNENDAKO
JANGELA



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sarlaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



*ERA GUZTIETAKO BANKETEAk
ospatzeko toki bikain batean*

Ozaeta Jauregia

Tel. 943 76 10 55

Faxa: 943 76 20 29

www.restaurantelasa.es

BERGARA



Lore sortak



Ezkontza eguna oroimenean gorde eta inoiz ez ahazteko eguna izan ohi da, eta horretarako ezinbestekoa da detaile guztiak ondo baino hobeto zaintzea. Detalle horien artean, ezin dira loreak ahaztu. Jarraian, hainbat lore sorta aurkeztuko dizkizugu, gustukoena aukeratzeko dezazun. Nork jasoko du gero zure lore sorta? Bera izango da ezkontzen hurrengoa!

Pastel koloreko lore sorta

2013ko ezkontzen apainketarako erabiltzen dira pastel koloreak, eta horrek lore sorta aukeratzeko momentuan ere eragina izango du. Apainketa koloreak eta lore sortak bat egin behar dute.

Peonia loreez osatutako sorta

Gaur egun izugarizko indarra hartu du peonia loreak ezkongaien artean. Dotoreak dira, femeninoak, erromantikoak eta ederrak.




**ileapaindegia
estetika**

943 747 4 21
San Bartolome, 33 bajo - ELGOIBAR

**Imprenta
Arrillaga**

Inprimaketa: Offset
Digitalean

Ezkontza gonbidapenak
Hiria argerriak
Gisla txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.

Fotokopiak
Kaleetan
Txan-betza

Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagasi@euskalnet.net



ILEAPAINDEGIA-EDERGINTZA
DONNA

- Manikura/Pedikura
- Masajeak
- Aurpegiko larruazal garbiketa
- Makilajea
- Keratinazko leuntzailea
- Laser diodoa
- Depilazio argizari beroa eta epelarekin
- Depilazio elektriko
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Dutzadun solariuma

Pedra Muguruza etorbidea, 13 - Elgoibar - Tel.: 943 744 388

BIAK
ileapaindegia

San Inazio, 4
Tel.: 943 742 725
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

ELENA
ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

estetikaalire

- * Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- * Ongizate tratamenduak
- * Masajeak
- * Fotodepilazioa
- * Mikropigmentazioa
- * Manikura
- * Solariuma
- * ...

Upatx zaharra, 1 behea
Tel.: 943 531 636
Elgoibar



Landare berdeak

Ezkontza ekologiko baterako edo basamortu itxurako parajean egiten diren ezkontzetarako oso egokiak dira lore sorta hauek. Landareen estilo organikoak eta kolore berdeak ukitu exotiko eta aurrerakoia emango dio ezkontzari. Lore sorta hori aukeratuz gero, komeni da ezkontzako apaingarrietan ere antzerako hostoak jartzea, eta posible da gonbidatuei landare hori bera oparitzea.



Ana erreginaren begizta

Lore sorta honek itxura naturala emango dio ezkongaiaren irudiari. Oso egokia da hippie estiloko soinekoarentzat edo aire librean egiten diren ezkontzetarako.




Kolore bakarreko lore sorta

Norberaren kolorerik gustukoena aukeratu eta kolore horretako loreekin osatzen da sorta. Kolore bereko lore mota desberdinak eta mota bakarrekoak aukeratu daitezke.



Lore sorta urdin argia

2013an asko ikusten da kolore urdin argia, eta ezkontzetan ere indar handia hartu du. Tendentzia hori aukeratuz gero, lore sorta urdin argia eramatea ezinbestekoa da.





FOTODEPILAZIOA

➔ Kokotsa.....	29€	19€/saioko
➔ Besapeak.....	39€	20€/saioko
➔ Izterondoak.....	39€	29€/saioko
➔ Hanka erdia.....	125€	75€/saioko + izterondo saio bat doan
➔ Torax-a eta sabela.....	159€	99€/saioko + besapeak saio bat doan

Santa Ana, 18 - 20870 Elgoibar - Tel.: 943 741 864



Gizonezkoen ile-apaindegia

JOSE ANTONIO

ile zaintzeko Kerastase eta L'oreal tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako

Errosario kalea, 30
Elgoibar
Tele.: 943 741 492



- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak



www.peluqueriajoseantonio.com

Indioilarraren lumekin eginda-ko sorta

Badira urte batzuk indioilarraren lumak ezkontzetan agertu zirela. Ukitu sofisticatua ematen dio ezkontzari.



Lore zuriekin eginiko sorta


Lore sorta tradizionalena da, baina sekula ez da garaiz kanpo geratzen. Norberaren gustuko loreak aukeratu eta forma polita emanez, sorta bikaina osatu daiteke. Zutoina kolorezko oihal batekin estali daiteke, ezkontzako apaingarriekin bat datorren koloreko oihala aukeratzea garrantzitsua da.

Ur-jausi estiloko lore sorta

Oso estilo tradizionala da, baina modan dauden loreak aukeratu ger, primerako lore sorta osatu daiteke. Peoniak, esaterako, lore aproposak izan daitezke mota honetako sorta aukeratzeko.

Lorategi estiloko lore sorta

Lorategitik hartu berriak diruditen loreekin osatzen da sorta hori. Kolore eta mota desberdinetako landareak erabili daitezke sorta hori egiteko.



ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26
Tel./faxa: 943 74 25 35

Jasone
Zerbitzu Grafikoak

Sartu, aukeratu eta eramán itzazu!!

San Ignazio, 1 • ELGOIBAR
Tel.: 943 53 17 45 • jasone@jasoneg.com
www.jasoneg.com

NAVA
INPRIMATEGIA

Santa Ana, 44 - 208
Telf. eta Faxa: 943 744 451
E-mail:nava@euskalnet.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

Etorri eta aukeratu.



14. urteurrena



- ◆ *Sarrerakoak*
- ◆ *Ahate giblezko mousse-a, sagar berde konpotarekin*
- ◆ *Txangurro eta itsaski entsalada, tipula kurruskariarekin*
 - ◆ *Ganba handiak plantxon*
- ◆ *Pata negra urdaiazpiko brotxeta, bost pipermin saltsarekin*
 - ◆ *Gerezi izozkia, jogurt zoparekin*
 - ◆ *Kafea eta etxeko krintza ardoa*

Prezioa 38,50 euro + BEZ (%10)

Portxe-jardineko jaiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.
Ostiral eta larunbatetan, gaueko 22:00etatik aurrera kopak jardinean.

Erretratu zaharra

1941

Aste honetako erretratu zaharra Gemma Monrealek ekarri du BARRENERA. Jaunartzeak pasatu berri dira, eta argazki hau ere jaunartze batean aterata dago. Gemma beraren aita eta osaba dira egun horretan jaunartzea egin zutenak, Eloy eta Alfredo Monreal, hain zuzen ere.



ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



**INFORMA ZAITEZ! AUTOKO AZTERKETA TEORIKOA 17 URTEREKIN!
IKASTARO TRINKOAK!**



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

**5 EGUNEKO TEORIKAKO
IKASTARO TRINKOAK**

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela

200 bat euskaltzale batu ziren zapatuan Elgoibarren, Mintza Egunean

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak 50 urte egin dituela-eta, Elgoibarren ospatu da aurten Mintza Eguna. Mintzalagunen jaiak 200 bat euskaltzale batu zituen, eta giro onean joan zen eguna. Mintzalaguna egitasmoa orain dela 20 urte sortu zuen Donostiako Bagera elkarteak, eta ordutik, hainbat eta hainbat herritan abiatu dituzte horrelako egitasmoak. Euskal Herrian 5.500 bat mintzalagun daude gaur egun. Ospakizuneko erretratu gehiago eta bideoak: www.elgoibAREN.net.



Mikel Olaizola eta Maialen Astigarragak aureskua dantzatu zieten mintzalagunei, ongi-etorria emateko.



Barre, kanta eta irrintzi artean egin zuten topa mintzalagunek.



200 bat lagun batu ziren bazkaritarako.




Pello Arrieta historialariak ibilbide gidatua eskaini zuen, Elgoibar hobeto ezagutzeko.



Sei sari banatu zituzten ekitaldian, eta horietako bat Elgoibarko Izarrak jaso zuen, aurten 50 urte egin dituelako.

Antzinako ondarea bistara



Villamayor de Marquina izenarekin sortu zuten herria 1346an. Eibartik eta Soraluzetik Debara arteko bailarari Markina deitzen zioten. Muga txikia esan nahi du hitz horrek. Gipuzkoa antolatu aurretik, Elizak Marquina deitu zion, elizbarrutien arteko muga egiten zuelako bailara honek. Bailara horretan handiena zen herriari, Villamayor de Marquina izena jarri zioten, herri bezala sortzen azkena izan zen arren. Ehun urte geroago hartu zuen Elgoibar izena. Sorrera hartan oso bestelakoa zen herria, eta ez zeukan gaur egun ikusten dugunaren antz handirik, baina orduko aztarna asko kontserbatzen dira oraindik, eta horiei erreparatuta, informazio asko batu du Pello Arrieta historialariak. Antzinako Elgoibar apur bat ezagutzeko aukera izango duzue, beraz, bi orriotan.

Ainhoa Andonegi

Zapatuan Mintza Eguna ospatu zen Elgoibarren, Euskal Herriko mintzalagunen jaia, eta 200 lagun inguru batu ziren festa horretan. Maalan batu ziren guztiak, eta hamaiketakoa egin ostean, Pello Arrietarekin egin zuten Maalatik Kalegoen plazara arteko bidea, Elgoibar hobeto ezagutzeko. Bost geldiuene egin zituzten ibilbidean zehar, eta gune bakoitzeko ezaugarriak esanguratsuenak azaldu zizkien Arrietak. Urte asko eman ditu Pello Arrietak Elgoibarri buruzko datuak batzen, eta informazio asko dauka bilduta, baina informazio biltze horretan bi lagun aipatu eta eskertu nahi ditu, Erdi Aroko Elgoibarri buruzko informazio asko eman diotelako: Javier Elorza eta Luis Mari Ezenarro.

MAALA

Maala zen hiribilduaren arrabala. XIV-XV. mendeetan betetzen joan zen, eta hiribildutik Maalara arteko gunean eraikin asko agertu ziren. Maalako eliza eta ospitala Erdi Arokoak ziren, Santiagoko bidearen barruan toki garrantzitsuak. Hiruzpalau oheko ospitalak izaten ziren, eta emakume batek izaten zuen ospitalearen ardura. "Gaixotasun susmargarriak" zituztenak hartzen zituzten han, izurriteak saihesteko. Emakume horrek diru-bilketak egiten zituen kalez kale ospitalea finantzatzeko eta testamentuetan ere askok lagatzen zuten ospitalerako dirua. 1869an San Vicente Pauleko mojak etorri ziren Elgoibarrera, eta 1999ra arte haiek egon ziren ospitalean.

Santa Katalina, San Anton, San Sebastian eta Magdalenari egiten zitzairen kultua garai hartan, eta lau irudi horiek izan ziren Maalako elizan. Santiagoko bideko eliza askotan ageri dira lau irudi horiek.

Mendaro eta Azkoitira joateko bideek ere inguru horretan bat egiten zuten, eta Maala gune inportantea izan zen herrian.

San Frantzisko kaleko azken etxea Behekorrea zen, gaur egungo Malape eta Ilunpe tabernen gaineko etxea, hain zuzen ere, eta oraindik ageri dira garai hartako aztarna batzuk. Benito de Lizaranzu izan zen horren azken jabea. Errotak eta burdinolak kontrolatzen zituen, eta aberastasun handia egin zuen.

Ormaetxea jauregia eta Etxezuri baserria ere Maalan zeuden. Apur bat gorago Toletxe, Usetxe eta Artetxe baserriak zeuden.

Ingurune honetan aipatzekoa da baita ere *Avenida 21 de septiembre* kalea zena. Izan ere, 36ko altxamenduan Azkoititik sartu ziren tropak, egungo Ermuaranbide kaletik, eta izen hori jarri zioten kaleari. Urte askotan jai egiten zen egun horretan, eta Askatasunaren Eguna esaten zioten. Maalako zubia ere Generalisimoaren zubia zen garai hartan.

KING-KONG

Herriko errotak gaur egun King-Kong eraikina dagoen lekuan zeuden, eta errota horiek oso garrantzitsuak izan ziren herriarentzat. Ura estazio ingurutik zetorren, Antzarsoroetatik, eta harresiaren kanpoaldean zegoen kanal baten bidez iristen zen errotetara. Dorretxe barroko bat ere bazegoen hantxe bertan, Urrutia, Albizuri, Iriondo eta azkenik Alkortanekoen jabetzan egon zena. 70eko hamarkadan bota zuten.

Marigorta erlojugilearen sutegia ere inguru horretan zegoen, eta herriko ospitalea ere San Frantzisko kalean zegoen.

KALEBARREN

Gune honetan hiribilduan sartzten gara. 1346an sortu zuten hiribilduak bi kale eta bi plaza zituen: gaurko Errosario eta San Bartolome kaleak, eta Kalegoen eta Kalebarren plazak. Hiribildu hori urez eta harresiz inguratuta zegoen. Iparraldean ibaia zegoen, defentsarako oso garrantzitsua. Hegoaldean, harresia eta hiru metroko kanala. Ur asko iristen zen herrira menditik, garai hartan urbanizatu gabe zegoelako.

San Frantzisko iturri aurrean herrira sartzeko ate garrantzitsu bat zegoen, Txankako inguruan beste bat, eta edozein arriskuren aurrean ate horiek itxi egiten ziren. Inguru honetan Altzola dorretxea zegoen, gaur egungo kultur etxea, eta eraikin garrantzitsua izan zen herriaren defentsarako. Pribatua zen, baina erabilpen publikoa ere ematen zioten batzuetan. 1617an, adibidez, herria bigarren aldiz erre zenean, Altzola dorretxean batu ziren agintariak erabakiak hartzeko.

XVI. mendetik XVIII. mendera arte udaletxea, pikota (jendea zigortzeko koloma), kartzela, alhondiga... Kalebarren plazan zeuden, goiko plaza baino zabalagoa zelako.

Maala aldea. 1869an ospitale berria eraiki zuten Santiago Sarasolaren planoak jarraituta eta 20 urte geroago hiltegia egin zuten.



AITA AGIRRE

XVI. mendean San Frantzisko komentu eta eliza eraiki ziren. 1499an egindako Pietate ermita zegoen, 1516an eraiki zituzten komentu eta eliza berria. Hortik hartu zuen kaleak ere San Frantzisko izena. 1840an, Mendizabalen desamortizazioarekin, frailerik gabe geratu zen eraikina, eta erabilera desberdinak izan zituen. 1891n bota zuten komentua, Aita Agirreko eskolak egiteko, eta eliza 1924an bota zuten. Eraikin hori bota ostean soberan geratu ziren harriak azoka plaza egiteko erabili zituzten. Pedro Mu-

guruza arkitektoak diseinatu zuen azoka plaza. Ospe handiko arkitektoa izan zen, besteak beste, Valle de los Caídosko diseinatzailea izan zen, Francoren gidaritzapean. Elgoibarren "maitatua" izan zen, eta lan asko egin zituen herrian kobratu gabe.

ERMUPTALE

Ermuaran bailarara joateko bidea zelako zeukan izen hori, eta hor beste ate bat zegoen, herrira sartzeko. Arriola dorretxea zegoen hor, eta Muguruzatarren etxea ere bai. Aita Agirre obispoa jaio zeneko etxea inguru horretan zegoen, eta baita Garatetarren etxea ere. Gotzon, Jenaro, Roman, eta Jose Luis Garate jaio ziren bertan, eta lan handia egin zuten euskara eta literatura alorrean.

Ermuaran, Suso edo goiko kalea zen gaurko San Bartolome kalea, eta Errosario kaleari Yuso edo beheko kalea esaten zioten. Hala ere, Ibai kalea edo Feria kalea bezala ere ezagutzen zen. Errosarioko kofradiak garrantzia handia izan zuen, eta hantxe dago gaur egun ere Errosarioko ama birjina.

Bi kale nagusien arteko kalekak su-ebakitzailak dira, suteei aurre egiteko. Elgoibarrek bi sute handi izan ditu bere historian: 1560an lehenengoa, eta 1617an bigarrena. Orduan erabaki zuten egurrezko etxeak egin beharrean, kare eta harizkoak egitea.

KALEGOEN PLAZA

Txankakua zubitik begiratuta, iparraldeko harresia ikusten da ibaian, eta horren kontra eraiki ziren etxe asko. Altzola dorretxe-raino iristen zen harresia. Eskuin aldean Moru mendia dago, eta han Burdin Aroko herrixka bat aurkitu zuten. Ezkerrean, Karakate-Muskurtxu ingurua ageri da, eta Elosura arteko bide horretan hamalau tumulu daude, hildakoak hilobiratzeko erabiltzen zirenak. Kalamuan ere beste bi daude. Artzai gunek ziren horiek.

Zubitik bertatik, Olaso ikusten da Eibarrerako norabidean. XIII.



Hirigunera sartzeko ekialdeko ate gotortua. Harresiaren kanpoan Errebala zegoen eta barnean Kalebarrengo plaza, Altzola dorretxea eta udaletxe zaharra zeuden. 1828an bota zuten ate hau.

mende amaieratik Olasotarren dorretxea eta eliza zeuden han, gaur egun hilerria dagoen lekuan. Hura zen herriko eliza nagusia, eta Olasotarrak ziren haren patroiak. Elgoibarren bizi izan zen azken Olasotarra, Juan Lopez Ganboa, 1516an hil zen, eta han bertan hilobiratu zuten. Indar ekonomiko eta politiko handia izan zuten, baina poliki-poliki itzaltzen joan zen.

Zubi ondoan, hona aipamena merezi duten beste bi eraikin: Salvatore ermita (1557) eta haruntzago Santa Klara komentua (1533). Komentu hori Maria Ramus Sarasuakoak eta Pedro Gonzalez Jausoroak sortu zuten. Mojen lehen komunitatea Jausoro dorretxean jarri zen bizi izaten.

Kalegoen plazan Aberain eta Ugaz dorretxeak zeuden. Harresia, egungo frontoiko laugarren koadrotik Etxeberria botika dagoen ingururaino iristen zen, eta hortik Lekuederreko lehenengo etxeetaraino. Ubitarteko atea zegoen botika inguru horretan. Plaza estua zen. 1604an erabaki zuten Olasoko eliza urrutiegi zegoela-eta, hiribildura ekarri behar zutela eliza, eta 1617an jaso zuten hoerregiak horretarako emandako baimena. Urte horretan herria erre zenez, hutsetik hasi ziren dena berreraikitzen, eta plaza ere berritza erabaki zuten. 1620 inguruan Udalak erosi zituen Ugaz eta Aberain dorretxeen orubeak, eta lbero eta Zuaznabar arkitektoek egin zuten plaza berriaren diseinua. Gerora, lan asko egin zituzten parrokiari eta herriko hainbat etxetan. 1640 inguruan hasi ziren eliza eraikitzen, baina arazo handiak izan zituzten lan horretan. 1716an eman zen estreinako meza. Arkupea, dorrea eta barruko obrak geroago egin zituzten. Frontoia 1751n egin zuten, hirugarren koadroraino, eta 1863an luzatu zuten. Udaletxea 1737an bukatu zuten, baina atzeko galeria eta bestelako dekorazioak beranduagoak dira. Udaletxe aurreko etxeak Udalak berak egin zituen, eta horrela osatu zen gaur egun ezagutzen dugun plaza.

‘Elgoibar bi erroberatan’ egitasmoa antolatu dute domekarako

Bizikletak ibiltzeko ohitura sustatu nahi dute antolatzaileek

Distantzia laburrak egiteko jendeak bizikleta erabiltzea sustatu nahi du Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak, eta helburu horrekin antolatzen du urtero *Elgoibar bi erroberatan* egitasmoa [Aurten bederatzigarren aldia da]. Domekarako egin dute zita. Kalegoen plazatik abiatuko dira, 10:15ean, eta 13:00ak alderako iritsiko dira plazara. Parte hartzeko, nor bere bizikleta eta kaskoarekin agertu behar da plazara.

Aurreko aldietako ibilbide bera egingo dute: Kalegoen plaza, Santa Ana, Olaso industrialdea, Antxustegi, Kalegoen plaza, Pedro Migel Urruzuno, Txarridunako biribilgunea, Ermuaran Bide, Ibar Txiki baserria, Sallobente eta buelta. Txarriduna biribilgunera iritsi eta handik Bernardo Ezenarro kaletik barrena plazara. Helmugara iritsitakoan, freskagarri eta ogitarteko bana jasoko dute partehartzaileek, Kalamua Guraso Elkartekoek espreski egin horretarako jarritako txosnan.

Kalegoen plazan txikientzako ibilbide bat ere prestatu dute antolatzaileek, molto motorretan, trizikloetan edo eta bizikleta txikietan egin dezaten. Ibilbidea honakoa izango da: Kalegoen Plaza, San Bartolome kalea, Errosario kalea eta plaza.



60+ programak jarraipena izango du ekainean

Orain arte izan duen harrera ona ikusita, 60+ programari jarraipena ematea erabaki dute Elgoibarko Udaleko Ongizate eta Kirol sailek. Saio bakoitzean hogeitahogeitaz lagunek parte hartu dute orain artekoan. Hilarabete honetan, martitzeneko batuko dira Mintxetako aparkalekuan, 10:00etan, eta han dauden gimnasiako aparatuak era egokian erabiltzen azalduko diete. Erropa eroso eta zapatilak eramateko gomendioa egin dute antolatzaileek. Ikastaroa doan da, eta ez dago aurrez izena eman beharrik.



Imanol Alvarez txirrindulari infantila garaile Azkoitian

Sasoiko dago Imanol Alvarez Elgoibarko Lagun Taldea klubeko txirrindulari gaztea. Azkoitin jokatu zen infantil mailako lasterketa irabazi zuen zapatuan elgoibartarrak.

Jaime Martinez arkularia fitxatu du Zarta Arkulari Elkarteak

Jaime Martinez arkulariak hamar urte egin ditu Ordiziako taldean, eta Elgoibarko Zarta Arkulari Elkartearen ariko da aurrerantzean. Martinezek laugarren egin du aurten Espainiako txapelketan, eta orain arte jokatu diren hiru probatan birritan igo da podiumera. Era berean Kantauri isurialdean aurtengo partean jokatu diren bi txapelketak irabazi ditu [beste sei falta dira]. “Zarta taldeak martxan jarri asmo duen proiektuak” erakarri du Elgoibarrera.

Mailaz igotzeari uko egin behar izan dio Concepto Egilek, diru kontuengatik

Denboraldi aparta egin ostean, Bigarren Mailara igotzea lortu zuen Concepto Egile areto futbol taldeak. CD Debarrena klubak, baina, ezin izan dio kantxan lortutakoari bulegoetan eutsi. Hala, Bigarren Mailari aurre egiteko aurrekontu nahikoa batu ez dutela-eta, uko egin dio mailaz igotzeari. “Pena izugarria” hartu dutela adierazi du CD Debarrena areto futbol taldeko presidente Jose Ramon Iriartek. Mailaz igotzeko aukera zutela ikusi zuten unetik, hau da, joan den otsailetik, Bigarren Mailan aritzeko aurrekontua osatzeko lanean jardun dute. Alabaina, egin dituzten ahalegin guztiak ez direla nahikoa izan aitortu du, atsekabetuta. Izan ere, Bigarren Mailan aritzeko 250.000-300.000 euro inguruko aurrekontua beharko luke klubak, baina zifra horietatik urrun geratu dira.

‘Sumando Gehituz’ jaia, asteburuan

Areto futbola gizarteratzeko asmoz, *Sumando Gehituz* jaia antolatu dute CD Debarrena taldekoek astebururako. Maalako parkean jarritako karparen bueltan zentratuko dute jaia. 19:00etan zabalduko dute Maalako karpa. Ekitaldian, klubeko eta Elgoibarko Udaleko agintariek parte hartuko dute, eta Concepto Egile taldea omentzeko baliatuko dute une hori. Asteburu osoko egitaraua antolatu dute, hala ere. Tartean, bihurtu, bazkalteko elkartuko dira zuzendaritzakoak, jokalaria, gurasoak eta gertuko lagunak.

Kopa irabazi dute CD Elgoibarko neskek, bigarren urtez jarraian

Finalean, 3-2ko emaitzarekin irabazi zuten elgoibartarrek



CD Elgoibarko emakumezkoen taldeak jokoan zeuden bi tituluak irabazi ditu aurten: Liga txapelketa eta Kopa. Kopako finalean 3-2 irabazi zion Elgoibarrek Mutrikuri. Horrenbestez, iaiz lortutako tituluari eutsi diote. Azkoitiko San Juan futbol zelaian jokatu zuten Kopako txapelketako finala, joan den zapatuan. Denboraldiko bi talderik onenak ailegatu ziren finalera. Batetik, Liga txapelketa irabazi eta Euskal Ligara igotzea lortu duen Elgoibarko taldea, eta, bestetik, Liga txapelketa bigarren postuan amaitu zuen Mutrikuko taldea. Tentsio handiko partida izan zela azaldu dute jokalariek elgoibartarrek, eta aitortu dute bi taldeek izan zituztela titulua irabazteko aukerak. Mutrikuarrak aurreratu ziren markagailuan, baina erasora egin eta markagailua iraultzea lortu zuten azkenean elgoibartarrek.

Kopa irabazi du Tecnifuelle eskubaloit taldeak



Gipuzkoako Kopa Txapelketa irabazi du Tecnifuelle emakumezkoen eskubaloit taldeak, eta denboraldia birbildu du. Liga txapelketa irabazi zuen lehenengo, Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko kanporaketa gero, eta emakumezkoen eskubaloitko mailarik gorenetik urrats batera aritzeko txartela lortu ostean, Kopa irabazi du orain, zapatuan Aloña Mendi taldearen kontra 29-15 irabazita.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

Udaberri Txapelketa

Lagunak 22 – Aretxabaleta 9 (1. mailako nagusiak)

Herriarteko Txapelketa

Elgoibar 1 – Astigarraga 2

Elgoibar 8 – Astigarraga 22 (Kadeteak)

Elgoibar 22 – Astigarraga 8 (Jubeniletan)

Elgoibar 13 – Astigarraga 22 (Nagusietan)

Añorgako Txapelketa

Iker Txurruka-Garate 22 – Zaramaga 12 (Nagusietan)

Getariako Txapelketa

Garate-Zubizarreta 22 – Andoainoak 13 (Jubenilak)

AGENDA

ESKU PILOTA

Barixakua, 7

10:00 Lagunak – Bergara (1. mailako nagusiak)

Areto futboleko mundialitua antolatu dute uztailearako

6 eta 14 urte bitartekoentzat antolatu dute mundialitua, eta uztailearen 1etik 13ra bitartean jokatu da, Elgoibarren. Arkaitz Sisniegak zuzenduko du. INEFen Espainiako Gorputz Hezikuntzarako Institutuan lizentziatua da Sisniega, eta gaur egun bera da Concepto Egile lehen taldeko prestatzaile fisikoa. Aurreneko astean entrenamenduak izango dituzte, eta bigarrean, taldeak egin eta txapelketa jokatu dute. Interesatuak herriko ikastetxeetan, directorbase@debabarrenaafs.org helbidera idatzita edota 66 889 872 telefono zenbakira idatzita eman behar dute izena. Izenematearen prezioa: 35 euro.

Ekainaren 21ean egingo dute CD Elgoibarren urteko batzarra

CD Elgoibarrek jakinarazi du hila- ren 21ean egingo dutela urteko batzarra, Kultur Etxean. Lehenengo deialdia 19:00etarako egin dute, eta bigarrena 19:30erako.

LANA.....

Eskara

- Neska eskaintzen da lanerako. Nagusiak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest.
☎ 690 925 929
- Emakume arduratsua lanerako prest. Nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen egingo nuke lan. Orduka edo interna.
☎ 602 068 313
- Klase partikularrak ematen ditut, DBH4ra arteko mailetan. Uztailean, goizez.
☎ 688 664 727
- Gizonezkoa lan bila. Zerbitzari edo sukalde laguntzaile lanetan egingo nuke lan. Elikagaiak eraldatzeko agiria. Gidari lanetarako ere prest. B1 gidabaimena daukat.
☎ 632 411 458
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Sukalde laguntzaile, hoteleko harreran, garbiketa lanetan edo pertsonak zaintzen egingo nuke lan.
☎ 608 474 923
- Emakumea lanerako prest. Garbiketarako egiteko edo umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. Esperientziaduna.
☎ 616 457 254
- Emakumea lanerako prest.
☎ 600 005 160
- Neska arduratsua umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest.
☎ 943 250 296 / 647 031 356
- Emakumea lan bila. Etxeko lanetan esperientzia handia daukat.
☎ 690 064 225

- Emakumea lan bila. Zerbitzari lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia handia.
☎ 943 530 679
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai.
☎ 722 499 586
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Paperak legez ditut.
☎ 680 808 125
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Interna ere bai. Paperak legez ditut.
☎ 631 463 492
- Emakume arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Interna edo orduka.
☎ 625 895 460
- Emakumea lan bila: nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Interna ere bai.
☎ 687 362 773
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Interna edo orduka.
☎ 626 052 165
- Emakumea lanerako prest. Sukaldean laguntzeko, nagusiak zein umeak zaintzeko, garbiketarako edo harreran lan egiteko prest.
☎ 608 474 923
- Mutil arduratsua lan bila: ostalaritzan, banaketan, okindegian, salmentan, nagusiak zaintzen edo margolari lanetan esperientzia.
☎ 606 072 354
- Mutila eskaintzen da garbiketarako egiteko edo zerbitzari lanetarako. ☎ 682 518 370

- Neska euskalduna eskaintzen da udako oporraldian umeak zaintzeko. Ordu-tegi maila.
☎ 618 814 064
- Emakumea lanerako prest: goizez edo asteburuetan.
☎ 699 232 823

Eskaintza

- Emakume euskalduna behar da adineko pertsona bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko.
☎ 646 163 055
- Datorren ikasturterako LH5eko ikasle bati eskola partikularrak emateko pertsona euskalduna behar da.
☎ 628 524 420
- 3. mailako ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da, uztaileko. Goizez.
☎ 677 449 458 (Itziar)

ETXEBIZITZAK.....

- Etxea alokatzen dut Ubitarte plazan. Dena bertututa.
☎ 943 742 442
- Buhardilla alokagai. 2 logela, sukalde, egongela, komun konpletua, igogailua.
☎ 616 111 603

GARAJEAK.....

- Garajea salgai Debako hondartzan.
☎ 648 203 775
- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan.
☎ 943 531 648 / 669 916 148



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitatean aterik gabeko lokal bat dauka lagun batek, zaborrez beteta, eta oso egoera txarrean. Jabeari sarritan eskatu zaio lokala ixteko eta baita garbitzeko ere, arazorik gerta ez dadin. Eta ez du jaramonik egiten. Zer egin genezake? L.A.

Etxebizitza edo lokal baten jabea behartuta dago bere jabetza hori egoera onean izatera. Betezen ez badu, administrariak edo Lehendakariak burofax bat bidaliko dio jabe horri, lokala behar bezala jar dezala eskatuz. Burofax horretan komunitatean bizi den orok eskubide eta betebeharrak batzuek dituela ohartaraziko dio eta bete ezean epaitegira jo dezaketela esango dio. **Oharra. Etxearen segurtasunari eragin diezaioketen kontuak lehenbailehen konpondu behar dira beti, eta jabekideen batzordeak irmo hartu behar ditu erabakiak.**

- Gure komunitatean ez daukagu aseguru komunitariorik. Beharrezkoa da? M.S.

Komenigarria da, nahiz eta ez den derrigorrezkoa. Aseguru komunitariorik ez duten komunitateetan, kalteren bat gertatuz gero, etxe jabe bakoitzaren polizaren arabera tramitatzen dira gastuak, beti ere partaidetza kuotaren arabera. Beti ere, aseguru badu eta polizak kalte hori estaltzen badu. **Aholkua: aseguru indibiduala eta komunitarioa baldin badituzu, aztertu ondo polizak, gauza beragatik bi aldiz ez ordaintzeko.**

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Asier**, hilaren 2an 9 urte egin zenituelako. Gurasoen eta arreba Araceliren partez.



• Zorionak, **Naroa**! Jarraitu orain arte bezain alai! Hodeiren, gurasoen eta aitona-amonen partez.



• Zorionak, **June**, sorgintxo! Oso ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Jon**, familia-ko guztien partez.



• Zorionak, **Irune**! 7 urte! Mila muxu familiako-koen eta bereziki, Onarren partez.



• 4 urte handi, txapeldun! Zorionak eta muxu handi bat, **Endika**. Familiako-koen eta bereziki, Markelen partez.



• Zenbat? Bat. Bat? Ez, biiii. Zorionak eta bi patxo, **Marbel**.



• Zorionak, **Sare**, asteazkenean 2 urte egin zenituelako. Txokoláte eta marubizko muxu bat familiako-koen partez.



• Zorionak, **Alex**! Bihar, 8 urte! Ondo pasa, txapeldun. Muxu bat familiako-koen, eta bereziki, Mikelen partez.



• Zorionak, **Paula**, ederrera zara. Igande-koen 2 urte! Muxu asko, etxe-koen partez. Ondo pasa.



• Zorionak, **Esther**, hilaren 4an 6 urte egin zenituelako. Muxu asko aittitta eta amamaren partez.



• Zorionak, **Maddi**, asteazkenean 6 urte egin zenituelako. Familiako-koen, eta bereziki, Unax eta Aneren partez.



• Zorionak, **Noa**, aste-arte-koen 10. urte betetze-koen partez. Etxeko-koen, lagun- eta bereziki, arreba Oihaneren partez.




• Zorionak, **Asier**, zure 10. urte betetze-koen partez. Etxeko-koen, lagun- eta bereziki, arreba Oihaneren partez.



• Zorionak **etxeko futbolaria**. Muxu erraldoi bat familiako-koen partez.



• Zorionak, **Beñat eta Amets**, ekainaren 1ean zuen 11. urte betetze-koen eguna izan zelako. Oso ondo pasatu genuen. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Susane**, bihar 6 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Familiako-koen eta lagun-ekoen partez.



• Zorionak, **Javier eta Jon**, urte-koen bat egingo duzuelako bihar. Patxo handi bana, familiako guztien partez.



1963ko kintoe-koen egun zoragarria eta ahazte-koen pasatu genuen zapatuan. Zorionak denoi, bereziki, urrutitik etorri zinetenoi. Lehenengo-koen izan da, baina ez da azkena izango.



• 4 urte jada! Zelako azkar! Ondo pasa, **Jone**, astelehene-koen. Muxu handi bat denon partez. Neska handi!




• Zorionak, **Lourdes eta Javier**, ekainaren 6an eta 7an urte-koen bete dituzuelako. Muxu asko familiako-koen partez. Ondo pasa!



1958an jaiotako-koen. Eskerrik asko gure urte-koen ospatzera etorri zareten guztioi eta Inazio Bereziartua musika eskolari, antolatzaile-koen partetik. Egun polita pasatu genuen.



• Zorionak, **potxola**, 12 muxu!



• Zorionak, **Haizea eta Maddi**, ekainaren 4an 3 urte egin zenituztelako. Muxu handi bana etxe-koen partez.

7 barixakua

Ikuskizuna

18:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. Udalak antolatuta, Mendaroko ikastolako frontoian.

Musika

21:30 Kontzertua *Bitter Honey* taldearen kontzertua antolatu du Sinuosek. Kultur Etxeko sotoan.

Jata

19:00 'Sumando, Gehituz' Debabarrena areto futbol klubak karpa jarriko du Maalan, eta domekara bitartean hainbat ekitaldi izango dira.

8 zapatua

Aisialdia

10:00 Mintxetako igerilekuen irekiera Irailaren 8ra arte egongo dira zabalik.

Aisialdia

11:00 Ikastolaren Eguna Ospakizun ekitaldia, Elgoibar Ikastolan.

Manifestazioa

13:00 'Bateragune ausia' Arnaldo Askatu herri ekimenak antolatuta, manifestazioa egingo dute Kalegoen plazan hasita.

Musika

20:00 'Euskal polifonia' Emudafek antolatuta, kontzertua eskainiko du Ibaeta abesbatzak. San Bartolome parrokiaren.

9 domeka

Aisialdia

10:00 Elgoibar bi erroberatan Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak antolatuta, Sallobentera joango dira bizikletaz.

11 martitzena

Politika

19:00 Sorturen herri batzarra Gatazkaren konponbidez, bake foro sozialaren gomendioez eta aurrera begirako erronkez jardungo dute. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

12 eguaztena


Dantza

20:00 'Ametsak' Biraka dantza taldearen jaialdia, Herriko Antzokian.


13 eguena

Dantza

20:00 'Ametsak' Biraka dantza taldearen jaialdia, Herriko Antzokian.



**Ekainaren 13an,
landareak ezagutzeko irteera.
Izenematea ekainaren 12ra arte.**



**Igandean, ekainak 9,
amaituko da Izarraitzeko Konkistan
izena emateko epea! Animatu!!**

OKINDEGIA	BOTIKA ORDUTEGIAK	GUARDIAK	Egunez	Gauetz
9 domeka: IBARRENEA	9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00		9:00 - 22:00	22:00 - 9:00
	Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)- Tel: 943 756 142		7 Garitaonandia	Garitaonandia
	Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638		8 Etxeberria	Etxeberria
	Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384		9 Etxeberria	Etxeberria
			10 Fernandez	Garitaonandia
			11 Yudego	Yudego
			12 Zabaleta	Etxeberria
			13 Barrenetxea	Barrenetxea
			14 Ibañez	Yudego



I. URTEURRENA

ASIER ORTEGA FERNANDEZ

2012ko ekainaren 10ean hil zen.

"Zaila izango da berriz ez zaitugula ikusiko onartzea, baina bizirik gauden bitartean, beti gogoratuko zaitugu"

Guraso eta anaiak



Nik maite
dud
euskara



DEBABE Udal Euskaltegia

Kalebarren plaza 2
ELGOIBAR
943 742 731
elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

UZTAILAREN 1etik 24ra (3 ordu egunean)
IRAILAREN 2tik 13ra (3 ordu egunean)

Prezioa: 118 €

Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 74 €
Bekatzte - sistema

MATRIKULALDIA: Ekainaren 28ra arte

LAN – POLTSA

Orain bi urte osatutako lan-poltsak beste urtebeteko jarraipena izango du. Bertan izena eman zenuten guztiok agiriak eguneratzeko aukera izango duzue uztailaren 12a baino lehen. (4. maila, HABEko historikoa, e.a.). Dokumentazioa Elgoibarko Udal Euskaltegiko idazkaritzan aurkeztu behar da.

11. EDIZIOA
IMH SARIAK ekainak 21
12:00etan

ekainaren 13 baino lehen
proposatu ikasle ohi aipagarria
www.imh.es webgunean!



DANOBATGROUP

PIXEL SISTEMAS



ENPRESA B A B E S L E A K

ENPRESA K O L A B O R A T Z A I L E A K

AGME, S.A. - ALCORTA FORGING GROUP, S.A. - DESARROLLO DE PROYECTOS HIDRAULICOS, S.L ECENARRO
S.COOP. - ENGRANAJES GRINDEL, S.A.L. - GORATU MAQUINAS-HERRAMIENTA - GURUTZPE TURNING
SOLUTIONS, S.L., ILS INDUSTRY LANGUAGE SERVICES, S.L. - JUARISTI, S.L. KONDIA - LAIP, S.A. - MAPFRE
ERMUA - MAZA - ONA ELECTROEROSION OSG COMAHER - SAGE LOGIC - SAMSIC IBERIA

IKASLE OHI AIPAGARRIA / IKASLE AIPAGARRIA / EKOIZPEN ARLOKO IKASLEA / ELGOIBARKO IKASLE AIPAGARRIA
2013koak nortzuk izango ote dira? Ikusi sariak webgunean...

**IMH Elgoibar HEZIKETA
ZIKLOAK**
Matrikula: uztailak 8-12

Imh
Ingeniaritza
DUALA
UNIBERTSITATE ESPANOLA
**Azken Informazio
Saioa:**
**Ekainak 12
17:00etan**

www.imh.es - imh@imh.es - Tel.943744132 - Elgoibar

VITALDENT

Egin bakeak dentistarekin

Orain badakit
inoiz ez dela berandu
irribarre polit bat
edukitzeko

Ortodontzian
espezialistak



RPS 49/12

EIBAR
San Juan kalea, 7
943 82 18 85